

Jangeletako greba: beharra eta eskubidea. Elkartasuna!

- ▶ Jangeletako langileek euren lan-baldintza kaxkarrak (prekarietatea, prestakuntza aukerarik eza, ordutegia, ratioak...) hobetzeko daramaten borroka guztiz zilegia da.
- ▶ Greba eskubidea oinarrizkotzat jotzen dugu. Horregatik onartezinak iruditzen zaizkigu greba zapuzteko ahaleginak. Aldiz, grebalariei ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin koordinatzeko deia luzatu nahi diegu.
- ▶ Eskubide hori lehenetsi egin nahi dugu, ikastetxeko antolakuntzan eta hainbat gurasoengan kalteren batzuk eragingo dituen arren. Hala ere, ezin dira zuzendaritza-taldeen bizkarrera bota grebaren ondorio guztiak.
- ▶ Izan ere, gatazka honetan ardura zuzena Hezkuntza Sailak eta enpresa kudeatzaileek dute, eta konponbidea ere beraien esku dago.
- ▶ Kalitatezko hezkuntza nahi badugu, eskolako beste esparruetan bezala, jangeletako langileek ere lan-baldintza duinak behar dituzte. Gainera, uste dugu beren lana irizpide hezitzaileetan antolatu behar dela, jangela eremu hezitzailea baita.
- ▶ Geroari begira, eta Hezkuntza Sistema Publiko integral baten ikuspuntutik, hezkuntza arloko zerbitzu osagarrietako (jangelak, garbiketa...) langile guztiek Hezkuntza Sailaren ardurapean egon beharko lukete, inongo azpikontratarik gabe.

2010-03-08

STEE-EILAS

